

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK 2026

EMATEKO ETA
IZAPIDETZEKO
IRIZPIDEAK



EIBAR
Udala | Ayuntamiento

Dokumentu honek Eibarren 2026. urterako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) izapidetzeko eta emateko irizpideak arautzen ditu, aplikatzekoa den araudiaren osagarri gisa.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ohiko edo ezohiko gastu zehatzak estaltzeko izaera finalista duten laguntza ekonomikoak dira, eta haien helburua da arrisku-egoerak edo gizarte-bazterkeria prebenitzea, saihestea edo arintzea. Gastu espezifikoek aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsona edo familientzat dira. GLLe dirulaguntza izaera dute, eta, beraz, horiek emateko kreditua egon behar da.

Eibarren GLLek estaltzen dituzten gastuak

ETXEBIZITZA (babes ofizialekoa ez dena):

- Etxebizitza erosteagatiko **hipoteka**-kuotak
- **Alokairua** (alokairua, koerrentamendua, azpierreantamendua, apopilotza, ostatua)

ETXEBIZITZA MANTENTZEA: Ura, estolderia, zaborra, komunitate gastuak, aseguraa, OHZ. Baita etxebizitza berrian instalatzeko horniduretan alta ematearekin lotutako aparteko gastuetarako ere.

ENERGIA: Elektrizitatea, gasa edo beste erregai mota bat.

LEHEN MAILAKO BEHARRAK: osasun-zerbitzu publikoak artatzen ez dituen mediku-beharrak. Eskabide horiek etxebizitza, etxebizitzaren mantenua eta energia kontzeptuei buruzko eskabide guztiak ebatzi ondoren baloratuko dira, betiere balorazio teknikoarekin eta kreditua egoteari lotuta.

BESTE GASTU BATZUK: dagozkien araudietan jasotako kontzeptuetan bakarrik (zorpetzea, altzariak eta konponketak), betiere balorazio teknikoa eginda eta kreditua egotearen mende.

Ezinbesteko baldintza izango da GLLak emateko, eskatzaileak aldez aurretik emandako laguntzei emandako erabilera justifikatu izana, edo, hala badagokio, emandako eta justifikatu gabeko GLLen zenbatekoa itzuli izana.

Aplikatu beharreko araudia

- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa.
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Errentari buruzkoa.
- 173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duena.
- 147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.
- Eusko Jaurlaritzaren urteroko Agindua, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzerako gehieneko zenbatekoak ezartzen dituena, laguntza horiek ordaintzeko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak adierazten dituena eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari dagokion aurrekontu-muga ezartzen duena.
- Izapidetzeko edo emateko prozeduran aplikatu daitezkeen gainerako arauak.

EMATEKO IRIZPIDEAK

Oro har, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak emateko, dokumentu honetan ezarritako irizpideak eta gehieneko zenbatekoak errespetatuko dira.

Egoera batzuetan eta salbuespen gisa, baliteke irizpide eta zenbateko horiek kontuan ez hartzea, koordinazio-bileretan gizarte-langileek egindako balorazio teknikoan oinarrituz. Betiere faktore hartuko dira aintzat: gastuaren benetako premia, pertsona gizarteratzen laguntzeko gastuaren garrantzia, eta haren lehentasuna kasuaren bilakaera hobetzeko edo ez okertzeko.

Ohiko etxebizitza edo bizitokia izateko beharrezkoak diren gastuak

ALOKAIRU-GASTUAK

Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio publiko batzuek edo haren mendeko erakundeek sustatutako babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, **ezin izango da alokairurako GLLrik eskatu**. Ezingo dute alokairurako GLLrik eskatu, halaber, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE), Gaztelagun, Emantzipa edo etxebizitza librearen alokairurako beste laguntza batzuk **jasotzen dituzten pertsonak edo horiek jasotzeko eskubidea dutenak**, salbuespenezko egoeretan izan ezik. Egoera horiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek hartuko dituzte halakotzat, eta eskaera-espeditentari erantsitako txosten sozialaren bidez justifikatuko dira, dagokion koordinazio-bileran talde-balorazio teknikoa egin ondoren.

Gehieneko zenbatekoak

Alokairua: 300€/hileko (gehienez, alokairuaren kostuaren % 70)

Baterako errentamendua, azpierrentamendua, apopilotza, ostatua:

- Etxebizitza bakoitzeko ez dira onartuko bi eskaera baino gehiago.
- **150€/hileko** bizikidetza-unitate bakoitzeko (alokairu-kostuaren % 80, gehienez).

HIPOTEKA-GASTUAK

Etxebizitza edo bizitoki bat erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak dira.

Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio publiko batzuek edo haren mendeko erakundeek sustatutako babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, ez da GLLrik ordainduko etxebizitza edo bizitoki bat erostearen ondorioz hartutako kredituen interes- eta amortizazio-gastuengatik. Egoera horiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek hartuko dituzte halakotzat, eta eskaera-espeditentari erantsitako txosten sozialaren bidez justifikatuko dira, dagokion koordinazio-bileran talde-balorazio teknikoa egin ondoren.

Hipotekagatiko GLLak **gehienez 5 urtez** eskatu ahal izango dira. Eskatzaileak pentsiodunak badira, ez da muga hau aplikatuko.

Gehieneko zenbatekoa

300€/hileko (hipotekaren kostuaren % 70 gehienez)

Etxebizitza mantentzeko gastuak

Gastu hauek dira: ura, estolderia eta zaborren hornidura, ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ) (hiri-izaerakoak eta landa-izaerakoak), komunitatearen kuota eta etxebizitzaren aseguruia. Baita etxebizitza berriaren instalatzeko horniduretan alta ematearekin lotutako aparteko gastuak ere.

Gehieneko zenbatekoak

900€/urteko. Bi bizikidetza-unitateren kasuan, 450 €/ urteko bizikidetza unitate bakoitzeko.

Energia-gastuak

Energia-horniduratik eratorritako gastuak dira, hala nola hornidura elektrikoa, gas-hornidura edo etxean erabiltzeko beste erregai mota bat. Kontzeptu horretan sartzen dira, halaber, Eibarko tokiko energia-komunitatean sartzeko kuota eta mantentze-gastuak.

Kontzeptu honetan, GLLak emateko, eskatzaileak bere eskubideak baliatu beharko ditu, **energiaren gizarte-bonua aldez aurretik izapidetuta**. Eskatzaileak GLLak eskatzeko baldintzak betetzen baditu, bai energiari dagokionez, bai mantentzeari dagokionez, bi eskaerak egiteko, energiaren gizarte-bonua aldez aurretik izapidetu beharko da.

Gehieneko zenbatekoak

600€/urteko. Bi bizikidetza-unitateren kasuan, 300 €/ urteko bizikidetza-unitate bakoitzeko.

Oinarrizko beharrei dagozkien gastuak

Araudiak ezartzen dituen lehen mailako premien gastuei erantzungo zaie, zehazki, osasun-zerbitzu publikoak artatzen ez dituen beharrian medikoekin lotutako gastuei, salbuespenezko egoeretan, eta esku hartzeko eta gizarteratzeko prozesuen mende dauden eskatzaileenei. Lehentasunezko taldeak izango dira, gainera, zaugarritasun- edota hauskortasun-egoeran dauden adingabeak eta adinekoak. Gizarte-langileek balorazio teknikoa egin beharko dute koordinazio-bileretan.

Eskabide hauek baloratzeko, **aurretik etxebizitza, etxebizitzaren mantentzea eta energia kontzeptuei buruzko eskabide guztiak ebatzi beharko dira, betiere balorazio teknikoa eginda eta kreditua badago.**

Beste gastu batzuk

Araudiak ezartzen dituen gastu espezifikoak erantzungo zaie (**zorpetzea, altzariak eta konponketak**), salbuespenezko egoeretan eta esku hartzeko eta gizarteratzeko prozesuen mende dauden eskatzaileen egoeretan. Lehentasuna izango dute adingabeak eta zaugarritasun-edota hauskortasun-egoeran dauden adinekoak elkarrekin bizi diren etxebizitzetatik eratorritako eskaerak, baldin eta ezinbestekoak badira. Gizarte-langileek balorazio teknikoa egin beharko dute koordinazio-bileretan.

URTEKO ONDAREAREN GEHIENENKO MUGA

Ondare ekonomikoa Gizarte Larrialdietarako Laguntzen xedeari eta izaerari egokitu behar zaiola balioesten da. Ondarearen gehieneko muga ezartzeko, indarrean dagoen araudia eta oinarrizko gizarte-langileen koordinazio bileran adostutakoa hartu dira kontuan.

TAULA OROKORRA

PERTSONA KOPURUA	GEHIENEZKO ONDAREA
1 pertsona	12.799,20€
2 pertsona (2 nagusi)	17.065,65€
2 pertsona (1 nagusi, 1 adintxikiko)	17.492,25€
3 pertsona (3 nagusi)	19.625,55€
3 pertsona (2 nagusi, 1 adintxikiko)	19.625,55€
3 pertsona (1 nagusi, 2 adintxikiko)	20.052,15€
4 pertsona (4 nagusi)	22.185,45€
4 pertsona (2 nagusi, 2 adintxikiko)	22.185,45€
4 pertsona (1 nagusi, 3 adintxikiko)	22.612,05€
5 pertsona (2 nagusi, 3 adintxikiko)	24.745,35€
5 pertsona (1 nagusi, 4 adintxikiko)	25.171,95€

PENTSIODUNEN TAULA

PERTSONA KOPURUA	GEHIENEZKO ONDAREA
1 pertsona (pentsioduna)	16.212,30€
2 pertsona (pentsiodunak)	20.478,75€
3 pertsona (pentsiodunak)	23.038,65€

IZAPIDETZEKO PROZESUA

Gutxitzeak eta errekerimenduak

Aurreko ekitaldiko gutxitzeak eta zenbatekoak itzultzeko errekerimenduak 2026ko maiatzaren 29a baino lehen ebatziko dira.

Eskaera

EPEA 2026ko urtarrilaren 7tik urriaren 23ra.

GLLak eskabidea aurkezten den hilabetetik aurrera ordainduko dira (eskaera egiten den hilabetea osorik). Edo gizarte langilearekin hitzordua eskatzen denetik, baldin eta hitzordua ezin izan bada egin eskaera egin den hilabetean, Udalari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

NOLA EGIN ESKAERA

Gizartekintza Sailean **hitzordua** eskatuta:

- Portalea eraikina. Bista Eder 10-4
- 943708440
- gizartekintza@eibar.eus

Laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Etxebizitza alokatzeagatik, mantentzeagatik, energiagatik eta hipotekagatik egin beharreko ordainketen zenbatekoa kalkulatzeko, emandako laguntzaren zenbateko osoa emateko aldiari dagozkion hilabeteen artean banatuko da. Emandako **laguntza behin-behinekoa izango da eta onuradunak egindako justifikazioetara lotuta** egongo da. Beraz, justifikazioen erabera kopurua gutxitu daiteke.

ORDAINTZEKO PROZEDURA

GLLak, dagokion kontzeptuan, eman zaizkiola jakinaraziko zaio onuradunari. **Ebazpenarekin batera, lehenengo ordainketa** egingo da.

Ondoren, urtean zehar, hurrengo ordainketa edo ordainketak egingo dira

Egindako gastuen justifikazioa

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunek jasotako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat hartu den gastu osoa justifikatzeko fakturak edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko obligazioa dute. Hala ez bada, **justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatuko da edo emandako zenbatekoa murriztuko da.**

JUSTIFIKATZEKO ALDIAK

Justifikazioak urteko lau alditan egingo dira. Epe horietatik kanpo, ez da inolako egiaztagiririk jasoko:

- **MARTXOKO** bigarren hamabostaldian
- **EKAINEKO** bigarren hamabostaldian
- **IRAILEKO** bigarren hamabostaldian
- **2027ko OTSAILEKO** lehen hamabostaldian (justifikatzeko gehienezko epea)

NOLA JUSTIFIKATU

Egiaztagiriak (fakturak, ordainagiriak...) honela aurkeztu ahal izango dira:

- **Aurrez aurre (adierazitako aldien barruan):** Eibarko Udaleko Gizartekintza Sailean (Portalea eraikina, Bista Eder 10, 4. solairua - Orduategia: astelehentik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara).
- **Online:** **gll.eibar.eus** helbidean, onuradunaren identifikazio datuak, GLL kontzeptua eta hilabetea sartuta.

Emandako GLLen eskaeran eragina duen eta baldintzak betetzearekin zerikusia duen edozein aldaketa (bizileku-aldaketa, diru-sarrera ekonomikoak, etxebizitza-aldaketa, alokairu-kontratuak...) Gizartekintza Sailari jakinarazi beharko zaio 15 eguneko gehieneko epean.

**Alkatetza Ebazpen bidez
onartuak 2025eko
abenduaren 17an**



EIBAR
Udala | Ayuntamiento